


Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 igo dira 2021eko uztailean aurreko hilaren aldean

2020ko uztailaren aldean, industriako prezioek % 7,6 egin dute gora, energiak (% 18,8) eta bitarteko ondasunek (% 9,0) gidatuta

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 igo dira 2021eko uztailean aurreko hilaren aldean. Uztaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 7,6koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2021eko uztailean prezioetan hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Farmaziako produktuen fabrikazioa* (% 3,0ko igoerarekin), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,1) eta *Kokeriak eta petrolioaren finantza* (% 2,0). Aitzitik, hil artean prezioetan jaitsierak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 3,9ko jaitsiera), *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,0ko jaitsiera) eta *Erauzketa-industriak* (% 0,5eko jaitsiera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketak positiboak izan dira kasu guztietan, aurreko hilaren aldean. Nabarmenezkoa da *Energiaren* prezioak % 2,2 igo direla, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrenak* % 0,6 eta *Bitarteko ondasunenak* % 0,5. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* eta *Ekipo-ondasunek* % 0,3ko igoera izan dute.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021ko Uztaila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021uzt / 2021eka	2021uzt / 2020uzt
INDIZE OROKORRA	108,0	0,8	7,6
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	103,9	-0,5	-5,7
Manufaktura-industria	109,3	0,6	7,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	107,1	0,4	3,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	99,8	0,0	-15,3
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	110,2	1,8	6,4
Kokeak eta petrolioaren fintzen	111,3	2,0	29,6
Industria kimikoa	120,1	0,5	8,5
Botiken fabrikazioa	111,1	3,0	2,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	100,0	0,3	1,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	115,0	0,9	13,9
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	110,9	-3,9	8,3
Material eta ekipoen fabrikazioa	107,3	0,0	2,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,7	-1,0	0,5
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,4	0,7	-3,1
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	108,3	0,1	2,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	100,3	2,1	6,7
Ura	111,0	0,0	1,1
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	107,9	0,6	2,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,5	0,3	2,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,1	0,6	2,9
Ekipoen ondasunak	107,4	0,3	-0,3
Bitarteko ondasunak	110,6	0,5	9,0
Energia	106,7	2,2	18,8

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko uztaila, 2020ko uztailaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 29,6ko igoera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 13,9ko igoera) eta *Industria kimikoa* (% 8,5eko igoera). Kontrako noranzkoan, jaitsi egin dira *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 15,3ko jaitsiera prezioetan), *Erauzketa-industriak* (% 5,7 behera) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,1 behera) sektoreetako prezioak.

Helburu ekonomikoaren arabera ondaskun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da *Energian* (% 18,8ko igoera), *Bitarteko ondasunetan* (% 9,0) eta *Kontsumo-ondasunetan*, oro har (% 2,9ko hazkundera), zeren *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,9 igo baitira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 2,4. Aitzitik, urte arteko terminoetan, *Ekipoen ondasunen* prezioak % 0,3 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62